


KAIIXO

URRETXUKO UDAL ALDIZKARIA




◀ **Kimets,
ahots txúriak**

◀ **Jose Mari Azkarate,**
"Gizarte hobia lortzeko egin dut lan"

◀ **Presupuesto 2005:**
7'4 millones de euros



86. ALEA
2005eko martxoa



Ale honetako laguntzaileak:

JESUS MARI ALBERDI
AGURTZANE ARAMENDI
IRENE CALVILLO
MIREN CASTILLO
JON CASTRILLO
ESTITXU GOMEZ
PELLO GONZALEZ
ANA ISABEL ITURBE
MAIDER IZAGIRRE
JABIER OTERMIN
MAITE QUEVEDO
KISKITZA UGARTEBURU
M^a CARMEN VIEDMA

Argazkilaria:

LUIS ANGEL TELLEZ

Lege Gordailua:
SS/678/93

Konposaketa:
ERROTAPRINT

Inprimaketa:
Iparragirre, S.A.

Kopurua:
3.500 Ale

KAIXOk ez du bere gain hartzen derrigorez aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

KAIXO no se identifica necesariamente con las opiniones de sus colaboradores, ni se hace responsable de las mismas

Ez bazara Urretxun bizi eta **KAIXO** aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, eman zure helbidea 943 03 80 88 telefonoan edota kultura.ur@urretxu.net helbide elektronikoan.

Si no vives en Urretxu y **quieres recibir la revista KAIXO en tu buzón**, déjanos tu dirección en el teléfono 943038088 o bien en kultura.ur@urretxu.net

AURKIBIDEA KAIXO

86. alea - 2005eko Martxoa



3 ALKATETZA

4 2005eko AURREKONTUAK

6 EUSKARA
BIZIBERRITZEKO PLANA



8

IPARRAGIRRE SARIA

11 KALEKO IRITZIAK



12

LIBURUTEGIKO TXARTEL

BAKARRA



16

IRIMIKO GURUTZEAK,
50 URTE



14

ELKARRIZKETA:
JOSE MARI AZKARATE



22


KIMETS ABESBATZA

GAU GIROAN



20

25 C.E.P.A.



26

KIROLAK:
IGUNTZE ASEGINOLAZA

28 LABURRAK

30 UDAL ZERBITZUAK

31 TOKIKO GOBERNU
BATZARRAREN ERABAKIAK

GURUTZ JAUREGI,**Eusko Jaurlaritzaren "2004ko Euskadi ikerketa saria"**

Berriz ere, aski ezaguna dugun urretxuarrak beste sari bat jaso du, oraingo honetan humanitate arloan, eta bereziki zuzenbidean egin duen ikerketa lan oparoagatik.

Lehendakariak berak Gurutz saria eman zionean berarekin egoteko aukera izan nuen, eta egia esan, harro sentitu nintzen Urretxuko herritar baten izena hain goian ikustean. Laster gure Korporazioak esker ona adieraziko dio bere meritu akademiko, profesional, literario eta ikerketa lan guztiengatik, eta bereziki giza arloan egindako lanagatik.

Gurutz laguntzaile izan dugu aldizkari honetan, eta orain ere beti prest agertzen zaigu eskatzen diogunean.

Zorionak, Gurutz, Udalaren eta herriaren izenean.



Argazkian Gurutz Jauregi, saria jaso zuen egunean

PRESUPUESTOS DEL EJERCICIO 2005

Fue a finales de diciembre, y por unanimidad del Pleno cuando se aprobaron las cuentas anuales del presente ejercicio. Un ejemplo de colaboración y sintonía entre los grupos para poder sacar adelante los proyectos municipales que venimos trabajando y que sin duda conseguirán mejorar cada día más esa calidad de vida de los urretxuarras que todos pretendemos. Las cuantías conseguidas, la finalización de los compromisos de deuda en este año, y el mantenimiento de la estructura presupuestaria, hacen del presente presupuesto una herramienta más que interesante para desarrollar los 32 proyectos que entendemos de necesidad y que hemos reflejado en sus correspondientes partidas. Ahora toca gestionarlos y cuanto antes ponerlos en marcha.

VISITA A URRETXU DEL DIPUTADO GENERAL

El pasado 2 de marzo, nuestro Diputado General, Joxe Juan González de Txabarri, giró visita a Urretxu por invitación municipal, de cara a conocer los proyectos del Ayuntamiento, valorar los programas comunes y plantearnos nuevas posibilidades de colaboración para esta legislatura.

Así, dimos cuenta de los proyectos que entendemos comunes y que ya se encuentran en marcha, como el de la revisión de las normas subsidiarias, con dos claros objetivos; sacar al mercado 440 viviendas de nueva construcción y un vial alternativo al eje actual, junto a la construcción de una nueva ikastola en la zona norte del municipio.

De la reurbanización del sistema general de espacios verdes y aparcamientos de la zona de estaciones, obra ya adjudicada que cuenta con una ayuda de 300.000 por parte de la Diputación Foral.

De la ampliación de las plazas del Centro de Día, hoy con lista de espera, tras las obras de adecuación compartidas entre Diputación y Ayuntamiento.

Otro de los proyectos comentado fue el de las posibilidades de los dos nuevos bidegorris; una hacia Legazpi, hoy en obras, y el otro en dirección a Azkoiti, parte del proyecto ya ejecutado y a la espera de su finalización definitiva. En cualquier caso, ambas obras estarán en uso público para el verano próximo.

En cuanto a la obra de reposición de cubierta y otros complementos del polideportivo municipal, indicar la ayuda importantísima otorgada por la Diputación que con sus 240.000 euros, nos permitió cubrir el 100% de los gastos, además del acuerdo de financiación alcanzado con el seguro municipal.

Además trabajamos conjuntamente las ideas de convenir un acuerdo de inversión para canalizar convenientemente la regata que parte desde el Mundo Mejor, acuerdo en el que incluiremos también al Gobierno Vasco. En esta misma línea de acuerdo a tres bandas estamos trabajando un convenio para la ejecución de la idea municipal para la puesta en marcha de un museo local dirigido a figura de nuestro bardo universal Jose Mari Iparragirre.

La reunión dio para repasar entre otros, proyectos comarcales que inciden importantemente en nuestro municipio, como la carretera Beasain-Durango, parking de camiones, tren de velocidad alta, búsqueda de suelos que nos den soluciones a nivel industrial y de servicios, atención en temas de tercera edad,....etc.

En definitiva, se evidenció un espíritu de trabajo en colaboración entre ambas instituciones, que sin duda es clave en conseguir mayores proyectos compartidos para la mejora de nuestro tejido local y social.



Argazkia: A. Zaldúa

PRESUPUESTOS 2005:

Fuerte incremento en Servicios Sociales e Inversiones



A finales del pasado año 2004, el día 20 de diciembre, y por unanimidad de todos los grupos políticos presentes en el Ayuntamiento, se llevó a cabo la aprobación del presupuesto del ejercicio 2005.

Hay que destacar que en el mes de agosto de este año se termina la amortización de la deuda pendiente, lo que supondrá, de cara a ejercicios sucesivos un ahorro de 422.000 euros anuales.



El desglose de los distintos apartados de Ingresos, Gastos y Presupuesto de las distintas comisiones se pueden ver en las tablas y diagramas adjuntos. Se observa un fuerte incremento del presupuesto destinado a las distintas comisiones (20%), siendo este incremento más acusado en el gasto social (en este apartado se pondrá en marcha el programa de previsión de drogodependencias junto con Zumarraga) y a inversiones (21,17%).

ESTADO de INGRESOS	año 2004	año 2004	diferencia
Imptos. Directos	925.443,54	1.017.184,03	91.740,49
Imptos. Indirectos	240.404,84	240.404,84	0,00
Tasa y otros	1.091.339,70	1.202.612,32	111.272,62
Transfer. Ctes.	3.393.016,32	3.813.741,89	420.725,57
Ing. Patrimoniales	22.882,77	23.326,35	443,58
Enajena. Inversiones	123.207,48	60.000,00	(63.207,48)
Transferencias de capital	956.675,52	1.109.058,92	152.383,40
TOTAL ESTADO INGRESOS	6.752.970,17	7.466.328,35	713.358,18

Este presupuesto asciende a 7.466.328,53, lo que supone un aumento del 11% respecto al del año 2004, dándose además un control de gasto corriente y de personal que asciende a 1.200.000 euros.

ESTADO de GASTOS	año 2004	año 2004	diferencia
Personal	1.126.192,19	1.181.141,30	54.949,11
Créditos	422.933,62	201.911,71	(221.021,91)
Gtos. Ctes.	1.525.495,95	1.692.771,77	167.275,82
Mancomunidades	384.224,39	404.084,45	19.860,06
Comisiones	1.362.030,38	1.645.311,89	283.281,51
Inversiones	1.932.093,64	2.341.107,23	409.013,59
TOTAL ESTADO GASTOS	6.752.970,17	7.466.328,35	713.358,18

Gastos 2005




COMISIONES	año 2004	año 2004	diferencia
Acción Social	448.797,80	615.790,35	166.992,55
Sanidad	14.187,82	16.683,92	2.496,10
Acción Social	462.985,62	632.474,27	169.488,65
Servicios	320.403,12	333.219,13	12.816,01
Euskera	58.817,00	68.940,00	10.123,00
Cultura	231.632,08	244.962,00	13.329,92
Biblioteca	3.005,05	3.005,00	-0,05
Euskera y Cultura	293.454,13	316.907,00	23.452,87
Educación	55.294,11	51.573,12	-3.720,99
Polideportivo	25.452,69	26.470,80	1.018,11
Frontón	6.000,00	6.240,00	240,00
Otras actividades	66.324,49	68.977,46	2.652,97
Juventud	8.260,46	8.260,46	0,00
Educación Juventud y Deportes	161.331,75	161.521,84	190,09
Rural	18.331,21	19.064,45	733,24
Empleo	105.524,55	182.125,20	76.600,65
TOTAL	1.362.030,38	1.645.311,89	283.281,51

También cabe destacar que en el apartado de ayuda al Tercer Mundo, para este año 2005 se establece un 0,8% del presupuesto, superando la barrera del 0,7% y queriéndose acercar en esta legislatura al 1%.>

Las características principales de este presupuesto 2005, según nos comenta Pello Gonzalez, Alcalde de Urretxu son:

- Unanimidad en la aprobación de todos los grupos municipales.
- Control de gasto de personal y corriente para destinar mas dinero a inversiones.
- Fuerte incremento del área de Servicios Sociales
- Z Compromiso solidario. (Aumento de la ayuda al Tercer Mundo)
- Estructura presupuestaria equilibrada, que junto a la eliminación de la deuda, proporciona un futuro interesante para el municipio.

M.^a Carmen Viedma



INVERSIONES (Total 2.341.107,24 euros)	
INVERSIONES MAS IMPORTANTES	
INVERSION	dotación económica
Casco Histórico	240.000,00
Proyecto Estaciones	600.101,00
Renovación Kale Txiki	240.000,00
Museo Iparragirre	180.303,00
Conducción Regata	150.253,00
Trafico-peatonalización	96.161,00
Dotación Salón Labeaga	90.151,00
Bidegorris	90.151,00
Muro río	90.151,00
Supresion barreras arquitectónicas	90.151,00
Rehabilitación cuesta y plaza Zubimusu	90.151,00

EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA

Joan zen urtarrilaren 13an Urretxu eta Zumarragako Euskara Biziberritzeko Plana (EBPN) aurkeztu zuten herri agintariak Legazpi dorretxean.

Datozen urteetako hizkuntza-politika zehazten lagunduko digun plan estrategikoa dugu, dokumentu irekia eta etengabe egokitzeko sortua

Urte hasieran aurkeztutako plan nagusi hori aitzakiaz hartuta, bi udaletako euskara teknikariek eta EBPN garatzeko propio jarritako teknikariek hitz egin dugu, planaren inguruko xehetasunak jaso nahian.

Kaixo: Askotan entzun dugu EBPN Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, baina zehatz-mehatz esanda, zer da plan hori?

Teknikariak: Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia hizkuntzaren normalizazioa eskuratzen jarraitzeko plan estrategikoa da, hizkuntza-politika egiten diharduten herri-aginteei euren jarduna bideratzen lagunduko dien oinarritzko tresna.

K: Zeintzuk dira plan horren helburu nagusienak?

Teknikariak: Hiru lirateke Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren sakon sakoneko helburuak:

Alde batetik, arazo nagusiak aurrekusi ondoren, epe motzera eta luzeagora erdietsi behar diren helburuak adostu, egitarauak egokitu eta ebaluazio-irizpideak zehaztu.

Bestetik, euskara biziberritzeko aurrekontuen azterketa sakona egin eta egungo egitarauak etorkizunean izan dezaketen eragina aurreikusiz lehentasunak finkatu.

Azkenik, herri-erakundeen arteko koordinazioa hobetu eta euskalgintzan diharduten bestelako enpresa eta herri-elkarteekiko harremana bideratu.

K: Noiztik eta nortzuk ari zarete lanean gai honen inguruan?

Teknikariak: Lan honen inguruan aspalditik ari gara lanean, baina ez gu teknikariok bakarrik; oso urrutira joan gabe, hortxe dago ikastetxeen, elkarten eta beste askoren lana ere, bakoitzak

bere neurrian.

Guztien lanak bildu eta koordinatu nahian, 2000. urtean hasi ginen plana jorratzen. Batzorde zabal batek (zinegotziak, euskara teknikariak, ikastetxetako ordezkariak, herri elkarteetako ordezkariak, ...) ekin zion plana diseinatzeari garai hartan. Gero, 2002. urtean, koordinazio eta sustapen lanetarako, beste pertsona baten beharra ikusi zen. Zintzo Mintzo elkartearekin hitzarmena sinatu eta erakunde honek langile bat egun erdiz jarri zuen lanean, 2002ko urriaren erdi aldera. Aurrerago, 2004. urteko irailetik beste pertsona bat ari da egun erdiz. Beraz, gaur egun guztira lau gara lan honetan ari garen teknikariak, bi herrietako euskara teknikariak barne.

K: Zein arlo edo esparru jorratuko dituzue EBPNren barruan?

Teknikariak:

- 1.- Ondoren datozenei transmisioa ziurtatzeko aldera: ikastetxeekin eta eskalategiekin elkarlana, familiak sentsibilizatu jotzen duten paperaren garrantziaz jabetu daitezten.
- 2.- Euskara erabiltzen duten sektoreei erabilera areagotu dezaten lagundu (administrazioa, aisialdia, kirola, erlijioa, herri elkarteak, enpresak, dendak, tabernak,...) eta erabilera esparru berriak ireki.
- 3 - Euskararen kalitatea hobea eta kantitatea handiagoa izan dadin lagundu (toponimia, bertako euskararen azterketa, dendetako hizkuntza paisaia, irakurzaletasuna, publizitatea euskaraz, euskararen erabilera eskualde edo herri mailako komunikabideetan...)

K: Lehen aipatu ditugun helburuak lortzeko, ekimen edo programa jakin batzuk garatzeko asmoa izango duzue, ezta?

Teknikariak: Bai, halaxe da; hona hemen ekimen horietako batzuk:

- 1.- Aisialdirako begirale ikastaroa: Aisialdiko begirale titulu ofiziala etxetik gertu eta euskaraz lortzeko aukera eskaini diete Zumarragako, Urretxuko eta Legazpiko Udalek bailarako gazteei aurtengo ikasturtean.
- 2.- Udalekuak: uztailean, hiru astetan, udalekuak antolatzen dira. Horien bidez, 6-11 urteko haurrek uda partean euskaraz jolas egiteko eta ederki pasatzeko aukera izaten dute.
- 3.- Transmisio kanpaina: Transmisio

argazkian ezkerretik-eskubira: Sebas Iturrioz, Maite Zaldua, Jesus Mari Alberdi eta Olatz Elustondo



kanpainaren barnean euskararekin lehen harremana izateko aukera eskaintzen zaie 3, 4 eta 5 urteko haurren gurasoei.

- 4.- Sentiberatze kanpaina: Joan den urtean haur jaioberrien gurasoei zuzendutako sentiberatze kanpaina jarri genuen martxan. Haurra izan berri duten gurasoei adur-zapi bat, gutun bat eta euskalduntze-alfabetazteari buruzko informazioa bidali zaizkie. Hemendik aurrera, berriz, adur-zapiaren ordezkari Olatz Zugastiren haur kanten CDa bidaliko zaie.
- 5.- Euskara zine aretoetara: Programa honen bidez, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 1.315 haurrek 2004ko urriaren bukaeran hasita martxoaren erdi aldera bitartean Tinko enpresak eskainitako 5 filme ikusiko dituzte euskaraz eskola orduetan.
- 6.- Mintzalaguna programa: Programa hau aurten jarri da martxan, bere inguruan euskara erabili ezin duenari laguntza emateko. Gaur egun 40 lagun ari dira., batez beste 3 laguneko taldeetan banatuta eta gutxienez astean behin elkartzen dira ordu betez euskaraz hitz egiteko. Talde bakoitzean euskaldun zahar bat eta bi euskaldun berri daude eta taldekideen nahien eta zaletasunen arabera, kalean paseatuz, tabernan kafea hartuz, kartetan jokatzuz... lantzen dute euskara.
- 7.- Merkataritza: Batetik, denden kanpoko hizkuntza-paisaia euskalduntzen ari gara eta guztira merkealdiko 600 kartel eta 9.000 "lehen-

orain" etiketa banatu ditugu herriko dendetan doan. Horretaz gain, arloko euskalduntzearekin ere hasi gara lanean. Herriko frutategi batekin egin dugu lehen saiakera eta hango ardura dunen laguntzarekin, fruta eta barazki hiztegi bat osatu dugu. Gaur egun bost dira egin ditugun fruta-dendak.

- 8.- Haur eta gazte etorkinentzako euskarazko saioak: Herrian geneukan haur etorkinen kopurua eta etorkin horiek zituzten hizkuntza arazoak kontuan hartuta, 2002ko uztailan haur eta gazte etorkinentzako euskara saioak jarri ziren martxan, ikastetxeen eta Udalaren arteko elkarlanaren bidez. Honela, astean hiru egunetan 6-16 urte bitarteko 40 ikasle etorkin elkartzen dira udal euskaltegiko gela batean, jolasen eta eskulanean bidez duten euskara maila hobetzeko helburuarekin.
- 9.- Udalen eta Zintzo-Mintzoren arteko hitzarmen bidezko ekimenak: Otamotz aldizkaria, Gazte Lokala, Gaztetxoan Bertso eskola, Urretxu eta Zumarragako jaietako ekitaldiak, liburuen lanketa.

K: EBPN dela eta, Aholku Batzorde bat ere izendatu omen zenuten; zeintzuk osatzen dute batzorde hori, eta zein da beren eginkizuna?

Teknikariak: Hauek dira Urretxu-Zumarragako Euskararen Alko Batzordea osatzen dutenak: Jabier Otermin eta Ikerne Badiola (zinegotziak), Jexux Mari Alberdi, Olatz Elustondo, Maite Zaldua eta Sebas Iturrioz (euskara teknikariak), Asier

Treku eta Aitor Calvillo (euskaltegiak), Josu Aztiria eta Marisa Alvarez (Zintzo Mintzo), Pello Akizu (ikastetxeak), Jon Zaldua (enpresak), Gorka Goikoetxea (UGGASA), Arantxa Zabaleta (Lorrazte elkarteak), Jon Pol Agirre (Goierri Kirol elkarteak), Josean Jarit (Urola Kirol elkarteak), Jose Mari Landa (eliza), Ibon Garmendia (Lekaio elkarteak) eta Idoia Luzuriaga (Goierriko Hitza). Esan behar da batzorde hau ez dela itxia, beraz, norbaitek parte hartu nahiko balu besok zabalik hartuko genuke.

Egitekoak:

- Udalerri Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia egokitzen laguntzea, hots, udalerriko plan estrategikoa zehazteko aholkuak ematea.
- Onarturiko plan estrategikoa garatzeko urteko kudeaketa-planen jarraipena egitea.
- Oro har, Urretxu eta Zumarragako udalerrietan euskararen erabilera normalizatzeko lanekin zerikusirik duten gaiak aztertzea.

K: Beste zerbait ahaztu al zaigu gai honen inguruan?

Teknikariak: Bidea luzea eta gogorra izango da eta seguruen bide honetan gauza asko gaizki egingo ditugu, eskatuko genuke akatsak detektatu ahala guri jakinaraztea eta, era berean, edonork egitasmoren bat balu ere horren berri ematea.>

Jesus Mari Alberdi



PLAN DE PROMOCION DEL USO DEL EUSKERA

El pasado día 13 de enero fue presentado ante los medios de comunicación el Plan de Promoción del Euskera (EBPN) de Urretxu y Zumarraga, un plan estratégico que nos ayudará a definir la política lingüística de los próximos años, documento abierto y creado para ser adaptado.

El objetivo principal de dicho plan es la adopción de las medidas necesarias para que puedan vivir en euskera todas aquellas personas que lo deseen.

EBPN desarrollará su trabajo en torno a tres objetivos estratégicos, como son:

- 1.- La TRANSMISION del euskera: enseñanza, alfabetización-euskaldunización, familia.
- 2.- El USO del euskera: administración, nuevas tecnologías, ámbito laboral, ocio y tiempo libre, deporte, religión.
- 3.- La CALIDAD del euskera: producción literaria, publicidad, producción cultural, medios de comunicación.



IPARRAGIRRE SARIA

La literatura se abre camino

LOS GANADORES DEL CONCURSO VEN EDITADOS SUS LIBROS

Ultimos premios:
Edición 2004:

Poesía, euskera:

David Tijero
(Bilbao)

Poesía, castellano:

Jesús María Cormán
(Pasaia)

Narrativa, euskera:

Goiatz Labandibar
(Oiartzun)

Narrativa, castellano:

Lorenzo Luengo
(Madrid)



David Tijero, Jesus M.ª Cormán y Goiatz Labandibar

El pasado mes de febrero, el Salón de Plenos del Ayuntamiento de Urretxu fue escenario de la entrega de los premios del concurso de literatura Iparragirre Saria de la edición del año 2004. Como es tradicional, además de una cuantía económica de 600 euros, los galardonados ven publicados sus trabajos en unas cuidadas ediciones. En esta edición, la referencia a Iparragirre ha sido más ajustada puesto que el ganador del certamen de poesía en castellano, Jesús María Cormán, ha escrito un centenar de canciones para Mikel Erentxun. El propio artista, que ha escrito el prólogo del libro de Jesús María Cormán, reconoció en la presentación que se realizó en San Sebastián que le resultaba "extraño leer los poemas de Cormán sin tener que poner música a sus letras", aunque apuntó la posibilidad de "tomar prestadas unas estrofas". Iparragirre Saria es una iniciativa de los Ayuntamientos de Urretxu y Zumarraga que trata de difundir la literatura y dar paso a jóvenes autores. Los coordinadores y jurados del concurso, Félix Maraña y José Luis Padrón nos ofrecen la mejor visión del concurso

Jabier Otermin



Iparragirre Saria, Un clásico en la promoción literaria

Félix Maraña

Los premios IPARRAGIRRE SARIA, que promueven las Comisiones de Cultura de los Ayuntamientos de Urretxu y Zumarraga, aparecen en el tiempo en uno de los soportes más singulares de promoción de la literatura vasca. Desde que en 1997, ambos ayuntamientos acordaran que el concurso llevara el nombre del ilustre poeta popular, pero también, antes, en que se convocaba y editaba con no menos rigor y entusiasmo, los premios Iparragirre se han convertido en una de las referencias de la joven literatura vasca. Tanto en euskera como en castellano, cuantos autores y autoras han recibido el premio, han seguido a posteriori realizando una tarea en la literatura. Es el caso, por sólo citar a uno de los escritores, del poeta euskaldún Xabier OIaso, de Gasteiz, quien ha ganado el premio en tres ocasiones, o Pello Otxoteko, quien ahora ha sido incorporado como miembro del jurado. Otro poeta euskaldún, David Tijero, que en este año se ha hecho acreedor al premio de poesía, también había recibido el "Ciudad de Irún", que convoca el ayuntamiento de esta Ciudad y Kutxa, recientemente.

También ha ocurrido algo parecido en castellano, tanto en poesía como en narrativa. Poetas como Alber Vázquez, Jon Obeso (guipuzcoanos) o Sergio Oihartzabal (Bilbao), ganadores del Iparragirre, han obtenido otros premios y publicado una obra posterior en narrativa. Vázquez acaba de publicar una novela, y Obeso ha recibido el premio Luis Mateo Díez. Oihartzabal se ha hecho acreedor al Premio Internacional Miguel Hernández de poesía. Todos ellos han seguido publicando libros.

En este año, el Iparragirre ha sido el motivo del reencuentro del ganador de poesía, Jesús María Cormán, con la literatura. Aunque no la hubiera olvidado –ha estado escribiendo canciones para músicos como Mikel Erentxun, al tiempo que ha seguido en la pintura–, lo cierto es que llevaba algunos años más ocupado en otras tareas artísticas. El propio autor ha expresado su entusiasmo, no sólo por la forma en que ha vuelto, sino por la manera en que ha sido recibido, con la edición esmerada de su obra, y el acompañamiento de los prologuistas Mikel Erentxun y Carlos Aurtenetxe, quien ha sido a su vez jurado de este concurso, y uno de los referentes literarios del propio Cormán.

A su vez, el ganador de este año en narrativa, Lorenzo Luengo, es uno de los autores jóvenes más premiados de los últimos años. Justamente también ha ganado, entre otros premios, el Ciudad de Tudela, por su relato "Gente que llama a la puerta", cuento que acaba de publicar la revista de literatura navarra Traslpuente.

El joven escritor Francisco Ignacio del Valle, ganador del premio de narrativa en castellano en 2002, mereció al año siguiente el prestigioso premio de Novela Felipe Trigo. Por otra parte, el concurso ha estado abierto al universo entero. En el año anterior, en el apartado de poesía en castellano ganó un autor peruano. Podríamos hacer otras tantas referencias a escritores y escritoras que han ganado el concurso.

No obstante, el mayor aliciente para todos los autores que se presentan sigue siendo el poder ver editado en libro, en una edición esmerada, su obra ganadora. Hoy, la colección de sus ediciones, en ambas lenguas, conforma ya una biblioteca de cierta entidad y solidez. No menor resulta el conjunto de otras consideraciones que se tienen con los premiados: además de la entrega de una cantidad en metálico, la expedición de un diploma y una escultura, que representa la del bardo Iparragirre, en la plaza de Urretxu. Dicha reproducción es una réplica en miniatura del original, realizada por Pili Arin, y que se entrega a todos y cada uno de los premiados.

El mantenimiento de unos jurados de calidad, que sostienen criterios literarios –y sólo criterios literarios– a la hora de juzgar las obras, ha ido acrecentando la aceptación de este concurso entre nuestros escritores y escritoras.

Jesús M.^a Cormán, Pello González,
Félix Maraña, Jabier Otermin y Mikel Erentxun



Iparragirreraren Birikak

Jose Luis Padrón



Iparragirre Literatur Sarien itzala espero bezala handitzen doa, Urretxu eta Zumarragako bi udalen borondate onaz eta literatur sortzaileen ahalegin eskergaz elikaturik, eta mafia afarietan emateko egokiagoak diren beste sari askoren padura kirastuetatik eta haien azpi lohitsuetatik oso urruti. Iparragirre Literatur Sarietan parte hartu nahi duenak ondo jakin behar baitu non barneratzen den, alde aurretik amorratu nahi ez badu. Sari hauek behintzat idazlanaren handia aintzat hartzen baitute soil-soilik, ez idazlearen igurtzirik, eta haren izenaren izar usainik ere ez. Fede ematen dut.

Fede ematen dut, 1997an Urretxu eta Zumarragako udalek herri bietako literatur sari biak bat egitea eta Iparragirreraren izen bera ematea zentzuz erabaki zutenetik, epai mahaikide ordu luzeko lanetan jardun naizelako bertan. Egin behar gozagarria, hala ere. Iparragirre Literatur Sarien itzala beroa baita, eta egun trumilka iristen diren orri hostoak haize bolada emankor batek jota lurreratzen zaizkigulako begien aurrera. Jasotako originalak asko dira kopuruz, eta literatur maila onekoa gehiengoa. Eta mahaikideen arteko interes handiko eztabaiden ostean, saritutako lanak azkenik, nabarmenak.

Epaitza emateari fallar esan ohi zaio gazteleraz, baina idazlanez idazlaneko ibilaldiaren bukaeran, gustura onartzen du batek "huts egitearen" ardura. Xabier Olaso, Alain Lopez de Lacalle, Xabier Aldai, Zigor Etxaniz, Jon Obeso, Karmele Jaio edota aurtengo irabazleen artean dauden Jesus María Cormán, Lorenzo Luengo, David Tijero eta Goiatz Labandibar, besteak beste, literatur talentuz betetako kultur langile porrokatuak dira, zeinetan

irakurtzen aurrenik eta gero idazten eman dituzten orduak oro ekarri baitiete saria. Ez dute hementxe hartu bat batean literaturarako zaletasuna, inondik ere. Literatur sortuntzaren barne baitan izan dira beti, eta ez dira "liluraturatik" irtezen. Iparragirre Literatur Sariaz aurretiko eta geroztiko haien idazle eta poeta ibilbideak gain begiratzea baino ez dugu, beren iragan eta etorkizun sortzaileek inoren laguntza eskatu gabe berba egiten eta egingo digutela ohartu gaitzen.

Iparragirre Literatur Saria diruz laburra da, baina besterenezina egileen zoriona. Haien lana hain ederki horrela liburu egina ikusteagatik egileen begirada garbiek agerian aitortzen duten zoriona alegia. Sari honen ederrena eta handiena egileei idazlana merezi eta behar bezala argitaratuko zaiela egiten zaien eskaintza baita. Hitza eman eta hitza bete. Horrexek ziurtatzen du, dudarik gabe, kultur proposamen honen arrakasta zintzoa eta gerora izango diren parte hartzaileen gogo bikainak bizirik iraungo duen ziurtasuna. Hotza

da normalean ematen zaion babes, baina ederra ematen zaio hemen jaka literaturari.

Bere izena daraman literatur sariaren eskutik, Iparragirrek kolpetik puztu ditu birikak, oinak ongi finkatu ditu, eta belarrezko bere gitarraren mugagabetasunean zeruertzeraino luzatzen ditu begiak. Arnasa da amets eginarazten diona.



*Maite Quevedo
M.^a Carmen Viedma*



EMILIO LUBIAN

Estoy de acuerdo con que se peatonalicen algunas calles los fines de semana. A mí me viene bien, sobretodo para pasear con la cría a las mañanas. Pero, está claro que lo que a unos beneficia a otros perjudica. Aunque a mí no me afecte, es normal que haya gente que se queje.

Ez nago ados. Ez zait batere ondo iruditzen. Ulertzen dut batzuei ondo etortzea hainbat kale oinezkoentzat bakarrik izatea, baina, honekin, aparkaleku asko kentzen dituzte. Eta gainera, asteburuan. Gaizki iruditzen zait alde batetik hainbeste aparkaleku kentzea eta bestetik ordaindu beharreko zerga hain altua izatea.

GAIZKA IGARZA



IBON LEUNDA

Niretzat, udaltzain bezala, gai konplikatua da hau. Oinezkoentzat gune berriak ezartzea berez ona da, baina, bere alde txarra ere badu. Kontua da hainbat kale soilik oinezkoentzat izateak leku gutxiago uzten duela aparkalekuentzat.

Zer iruditzen zaizu asteburuetan hainbat kale oinezkoentzat bakarrik izatea?
¿Qué le parece que los fines de semana se peatonalicen ciertas calles?

Oinezkoentzat ondo dago asteburuetan hainbat kaletatik kotxerik ez ibiltzea baina azken hauentzat arazo bat da hau. Aparkatzeko geroz eta toki gutxiago gelditzen da eta iruditzen zait kotxei ere irtenbide bat eman beharko zitzaizela.

JON MENDIA



JACINTO TEJEDOR

Me parece que es lo peor que han podido hacer. Yo vivo en frente del ayuntamiento y, al final, lo paga el que vive aquí. Por ejemplo, vienes con el coche lleno de compras, no puedes pasar para descargar, además, tienes coches aparcados... Yo estoy muy quemado ya, y eso que esto es la primera fase. Como dice el refrán, lo que mal empieza, mal acaba.

A nosotras nos parece bien. Si los coches se pueden desviar por otra zona, creemos que es una buena solución que ciertas calles sean peatonales. De esta manera, por lo menos los fines de semana, las calles quedan mas despejadas y te permite andar más tranquila.

**MILA AREITIO,
BEGOÑA IZAGIRRE ETA
ARANTXA ASKASIBAR**



LIBURUTEGIKO IRAKURLEAREN TXARTEL BAKARRA



Urretxuko Udal Liburutegiak urteak daramatza Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalaren barne. Baina aurten, proiektu honek urrats berri bat ezagutu du, irakurlearen txartel bakarra, hain zuzen.

Hau da, hemendik aurrera, txartel bakarrarekin sartu ahalko da on line katalogo kolektibo honen partaide den Euskal Autonomia Erkidegoko edozein liburutegi publikora.



Horretarako, interesatuok liburutegira joan eta txartela jaso ahal izateko Eusko Jaurlaritzak prestatutako datu pertsonalei buruzko orrialdea bete eta zinatuz beharko duzue. Umeen kasuan, guraso edo tutoreek egin beharko dute. Ondoren, Ane Aranak, liburutegiko arduradunak, zuen datuak sarean sartuko ditu, txartela doainik eta pasahitza eskuratzuz. Pasahitza NANaren zenbakia izango da, baina www.euskadi.net/katalogobateratua interneteko helbidean sartzean aukera izango duzue aldatzeko. Ondoren, webgunea kontsultatuz gero, bilaketa bakarrean, jakin ahalko duzue interesatzen zaizuen gaiari buruz zenbat dokumentu dauden eta baita zein liburutegitan eskuratu ahal izango dituzuen ere, Zumarraga eta Legazpin adibidez, gertuenak aipatzeagatik. Hori bai, liburuak eskuratu

edo utzi ahal izateko beharrezkoa da beti txartela liburutegira eramatea, irakurgailuak kodea zein den jakiteko. Proiektu hau gauzatu ahal izateko, Anek ikastaroak eta bazkide txartelak aldatu behar izan ditu eta informatizatuta zeuden 3.000 liburu baino gehiago bi egunetan katalogatu behar izan dira.

Mailegu baldintzak

Urretxuko udal liburutegian guztira 6 dokumentu hartu ahalko dituzu, 3 liburu eta 3 material berezi (bideoak, diskoak, CD-ROMak....). Horrez gain, sareko edozein liburutegitan 8 liburu eta 8 material berezi maileguan hartzeko aukera duzu. Horrek esan nahi du, Urretxuko liburutegitik 3 liburu hartu badituzu, oraindik sareko gainerako liburutegietatik ere

beste 5 monografia eraman ahal izango dituzula.

Liburuak 15 egunetan eta material bereziak 7tan mailegatu daitezke, bitan berritzeko aukera izanik.

Eskaintza zabala

Urretxuko liburutegian, liburu, aldizkari eta egunkariez gain, ikusentzunezkoak daude. "urretxuar askok ez jakin arren horrela da. Kasetak, euskal musika, jazza eta musika klasikoko Cdak, CD Romak, fikziozko filmak, VHS eta DVDan, euskaraz, gaztelaraz eta ingeleraez, baita dokumental oso interesgarriak ere, gizarte zientziak eta historiakoak daude eskuragai" dio Anek. Guzti hauek katalogoetan sailkatuak daude.

EUBI programa

Gipuzkoako Foru Aldundiaren programa honi esker, gure liburutegian ikusentzuzko euskarazko materiala (euskal musikako azken Cdak, filmak eta DVDak) jasotzen da eta bertatik banatzen da Urola Garaiko beste herrietako liburutegietara.

Dokumentu hauek erosketa zuzenen bitartez lortzen dira, baita erakundeek (udalek, Kutxak...) eta partikularrek bidaltzen dituztelako ere.

Haur eta gazteen irakurtzeko zaletasuna suspertzeko programa

Urretxuko liburutegiak Kultura batzordearekin batera, umeak liburutegira erakartzeko ekintzak antolatzen ditu urtean zehar. Anen eritziz, ekintza hauen bitartez, umeak lehen aldiz ezagutzen dute liburutegia. Ihauterietan adibidez, tailerrak antolatzen dituzte, udan igerilekuan ere irakurtzeko aukera izaten dugu Bibliopiszina ekimenaren bitartez eta gabonetan tailerrez gain, umeek olentzeroren bisita izaten dute. Bestalde, Urretxun gertatzen diren beste gertakizunekin ere bat egiten saiatzen dira, adibidez, mineral eta fosilen asteen, gai honi buruz dauden liburutegiko dokumentuak erakutsiz. Zumarragako liburutegiarekin elkarlanean ere, Liburuak Plazara egitasmoa antolatzen dute urtero.

Haur eta gazteen irakurtzeko zaletasuna suspertzeko programa oso arrakatsua izaten da eta Espainiako erakunde batek ia urtero saritu du Urretxuko liburutegia, haurrak liburutegira gerturatu eta jolasaren bidez atseginagoa egiteagatik. Saria, ume eta gazteentzako liburuak dira.

Estatistikak

Gehien irakurtzen dena erderazko eleberria da, baina helduek gero eta gehiago irakurtzen omen dute euskeraz, Anek aditzera eman digunez. Haurrek liburu asko irakurtzen dituzte euskaraz. Dena den, Anek helduei mezu bat zuzendu nahi die, liburutegia aisialdirako toki on bat dela, ez bakarrik eleberriak hartu eta etxera eramateko. >

Kizkitza Ugarteburu



LIBURUTEGIKO DATUAK

Liburuak	14.031
VHS eta DVDak	561
CDak	238
CD-ROMak	60
Kasetak	110



Umeek beraientzat antolatutako ekintza batean, adi-adi.

La biblioteca municipal de Urretxu lleva años integrada en el Sistema Nacional de Bibliotecas de Euskadi. Pero, a partir de ahora, y con un único carné, se podrá acceder a cualquier biblioteca pública que forme parte de este catálogo colectivo. Es decir, desde www.euskadi.net/katalogobateratua el usuario con una sola búsqueda puede saber cuantas obras hay sobre el tema que le interesa y además en qué bibliotecas puede obtenerlas.

Además de libros, revistas y periódicos, la biblioteca ofrece una gran variedad de materiales especiales como videos, discos, CD-Roms y DVDs.

La biblioteca de Urretxu en colaboración con la comisión de cultura organiza actividades y talleres en carnavales, navidades, en verano (Bibliopiszina) para impulsar la lectura entre los niños y jóvenes. Ane Arana, la encargada de la biblioteca, anima a los adultos también a que consideren la biblioteca como un espacio de tiempo libre, no únicamente para elegir una novela y llevarse a casa.

GURUTZEAK, 50 URTE

IRIMOKO

*La cruz de Irimo,
todo un símbolo urretxuarra,
cumple 50 años.
Algo que para muchos ha
estado ahí toda la vida,
fue inaugurado, tras un largo
mes cargando piedras, cemento,
hierros y agua,
un feliz 11 de setiembre de
1955, con una misa
de campaña y la posterior
bendición de la cruz
y del refugio*



Hasieran, lagun talde baten eguneroko txikiteoko hizpidehutsa besterik ez zena, herriko seme jator horien kemenari esker, egitasmo sendo bihurtu zen. Horrela, Irimoko gailurrean, goialdean gurutze erraldoia izango zuen aterpe bat eraikitzeko ametsa, behin eta berriro aztertu eta baztertu ondoren, azkenean gauzatu zen. Garaiko herriko parrokoa zen On Nicolás Madinabeitia burua zela; José Lete diruzaina, eta Elías Sasieta, Leorcio Sasieta, Asensio Antia, Manuel Salegi, Ignacio Aizarna, Ignacio Pildain, Dionisio Plazaola, Paco Mendiola, Pío Rodríguez, Benito Pérez, José A. Txintxurreta eta Julián Izagirre gainontzeko partaide edota laguntzaileak zirelarik, Irimoko gurutzearen aldeko batzordea eratuta zegoen. Baina berehala, jakina, lehenengo arazoa sortu zen: nola egin aurre 95.00 peseta aurrekontuari?. Zorionez, asko kostatako murrizketa lortu ondoren 67.00 pesetan itxi zen obra guztiaren aurrekontua. Garai hartan harrobi lanetan oso trebeak ziren Orbegozotar azpeitiarrek, orduko 100 pta.-ko kontratua sinatu zuten. Baldintza batekin ordea: beharko zuten materiala guztia gailurrean eduki behar zuten eskuragai.



Sabes lo que recuerda
 Una Cruz en el Irimo?
 Una Cruz en la familia,
 Una Cruz en el camino,
 Una Cruz en nuestra escuela,
 Una Cruz en el destino.
 Y cuando esta Cruz veas
 Tan cerquita del cielo,
 Recuerda que el camino
 Arranca desde el suelo.



Kontutan izanda garai hartan Irimora iristeko igo behar den azken txanpa, gaurkoa baino askoz aldapat-sua zela; esan beharrik ez dago zenbat izerdi, zenbat odol, botako zuten, auzolanean eta guztiz musu truk, parte hartu zuten urretxuar askok eta askok

bildu ondoren goraino garraiatu behar izan zutena.

Urretxuarrek gogo biziz hartu zuten erronka berezi hau; horren adierazpena dugu, bertako eta kanpoan bizi ziren herritarren paregabeko esku zabalta-sunari esker biltzea lortutako 42.000 pta.-ko dirutza.

Gainontzeko zorra Foru Aldundiak emandako dirulaguntzari esker kitatu zen. Aipatzekoa da garai hartan diputatua zenak eta gero Zumarragako alkatea izango zen Artiz jaunak, dirulaguntza ahalik eta azkar-

“ **Se necesitaron 25 toneladas de cemento, 2 de hierro, 30 metros cúbicos de piedras, 60 de arena y miles de litros de agua** ”

zen: bertan ospatutako eskertze-meza bat eta ondoren, gurutzearen eta aterpearen bedeinkapena. Meza batekin hasiko dira ere, datorren irailaren 4an, Irimoko gurutzearen 50 urteurrena ospatzeko prestatzen ari diren ekitaldiak. Gero, eguerdi aldean, trikitalari, txistulari, txalupartari eta bertsolariak berotuko dute herri bazkariaren abiapuntua. Bazkalostean, arratsaldeko 5ak inguruan, izango da herrirantz zuzendutako jaitsiera.>

Jon Castrillo

“ **De un presupuesto de 67.000 ptas, los urretxuarras aportaron voluntariamente 42.000 ptas. El resto fue asumido por la Diputación** ”




La familia Ugalde, propietaria de los terrenos, puso como condición que se conservara la cruz antigua; por ello se decidió instalarla dentro del refugio

ezkerretik eskubira, atzetik aurrera:
 Gabriel Zamalloa, ?, Asensio Antia,
 Nicolás Madinabeitia (apaiza), Elias Sasieta, J. Andres Txintxurreta, Ignacio Pildain, Paco Mendiola, Felipe Mendiola, Benito Pérez, Manuel Salegi eta Jose Luis Lete

Bi tona burdin, 25 tona porlan, 30 metro kubiko harri, beste 60 harearena eta milaka litro ur behar izan ziren eraikina altxatzeko. Lan prestaketa zela eta; gero beharko zen ura biltzen joateko, gailurretik hurbil bizpahiru ur-biltegi prestatu ziren, masa egite-rakoan euriak emandakoa aprobe-txatu ahal izateko. Lau hilabetetan, ordea, ez zuen tanta bat ere bota. Bat-bateko lehorraldia zela eta, Lizarriturriko ur jario eskasa izan zen

ren lortzearen alde, eginiko gestioa.

Horrela, abuztuaren 4an hasitako proiektuak irailaren 2an, arratseko 6ak inguru, bete zuten bere azken eginbeharra. Estreinaldia, berriz, irailaren 11n, era simple eta labor batez, egin



OSO PERTSONALA

Izen-abizenak:

*Jose Mari Azkarate
Zabaleta*

Jaioterria:

Urretxu

Jaioteguna:

1937ko urtarrilaren 22a

Ofizioa:

ajustador matricista

Afizioa:

futbola eta Erreal





“gizarte hobea
lortzeko egin
dut lan”

JOSE MARI AZKARATE

Jose Mari Azkarate urretxuarra saltsa guztietan mugitu den pertsona da. Gaztetan hasi zen langile mugimenduetan parte hartzen, eta denbora guzti honetan denetik egin duela esan daiteke. Gaur egun, eta nahiz eta jubilatuta egon, APPALUREko presidente da eta bere eskubideak defendatzen jarraitzen du. Bizitzan izan dituen nondik-norakoen inguruan mintzatu gara Jose Marirekin.



Nolakoa da Jose Mari Azkarate?

Jose Mari Azkarate konpleju batek markatu duen pertsona da. Ni kaletarra naiz, baina eskolan hasi nintzen arte ez nekien erderaz. Horrek asko markatu ninduen, eskolan gainerako haurrek burla egiten baitzidaten. Bizitza osoan izan dudak konplejoa da hori. Horrez gain, gerra osteko garaian jaiotakoa naiz, eta etxean hori asko nabaritu da. Ezer gutxi genuen eta asko sufritu dugu.

Haurtzaroa, beraz, gogorra izan zen?

Bai, etxean ez zen jateko askorik izaten eta oso gaztetatik hasi nintzen lanean, edozer gauzetan egiten nuen lan. Eskolara, ahal nuenean bakarrik joaten nintzen. Gerra ostea oso gogorra izan zen. Gogoan ditut bereziki Gabon batzuk. Urte hartan arraultza bat niretzako bakarrik jateko aukera izan nuen. Izugarria izan zen hura niretzat. Beharra zela eta, 14 urterekin lanean hasi nintzen Irimon.

Lanean hastearekin batera hasi al zinen mugimenduetan parte hartzen?

Ez, ezkondu arte geldirik egon nintzela esan daiteke. 1963an Maria Jesusekin ezkondu nintzen Elorrion, eta hori niretzat askapena izan zen. Ordurarte etxean izan ez nuen askatasuna eman zidan emazteak, eta

hainbat gauzetan parte hartzen hasi nintzen. Era berean, Burgoseko prozesuak asko markatu ninduela ere esan behar dut. Horrek ere bultzada handia eman zidan sinesten nuen horretan parte hartzeko.

“**Burgoseko prozesuak asko markatu ninduen, eta ekimenetan parte hartzeko behar nuen bultzada eman zidan**”

Zein ekimenetan parte hartu zenuen lehenengoz?

Irimon “Caja de compensación” deitzen zena zegoen. Bertan, bajaran zeuden langileei laguntza emateko dirua jasotzen zen. Enpresak berak eta langileek ematen zuten diruarekin osatzen zen hori, eta bertatik, laguntza ematen zitzaien bajaran zeuden langileei. Hor hasi nintzen lanean. Parte hartu nuen lehen ekimena izan zen. Ordutik beti egon izan naiz langile mugimenduen lotuta. LAB sindikatuko kide izan naiz, eta Irimoko enpresa batzordean parte hartu dut.

Baina ez zara sindikal munduan bakarrik mugitu, ezta?

Semeak izan nituenean eta horiek eskolan hasi zirenean, beste hainbat ekintzetan parte hartzen hasi nintzen. Guraso elkarteak sortu genuen Juan XIII eskolan, gaur egun Gainzuri den ikastetxean, eta bertako presidente izan nintzen. Era beran, bazen beste elkarte bat “Familias de Urretxu” izenekoa, eta hor ere aritu nintzen. Haur eta gazteentzako ekimenak antolatzen genituen. Adibidez, igande arratsaldetan dantzaldia antolatzen genuen Urretxuko Ederrena frontoian. Gazte asko joaten zen bertara, zerbaiten beharra baitzegoen. Orkestra ekartzen genuen, eta han aritzen ziren ilunpetan dantzan. Egun batean, aberia bat zela eta, ezin izan genituen argiak itzali eta ez zen inor dantzara atera. Galdetu egin nien gazteei ea zergatik ez zuten dantza egiten eta argiak itzali arte ez zirela aterako esan zidaten. 13 eta 15 urte bitarteko gazteak ziren, eta igande arratsaldeak pasatzeko zerbait behar zuten. Horretarako, beraientzat gauzak prestatzeko egiten genuen lan. Demokrazia heldu zenean eta Udal demokratikoak sortu zirenean “Familias de Urretxu” elkartearen lana eta indarra behera joan zen.

Lehen udal demokratikoak ere lanerako aukera eman zizun.

Egin ziren lehen udal hauteskundeetara independente bezala, baina OIZ-EMKrekin (Euskadiko Mugimendu Komunista) batera, aurkeztu nintzen. Garai hartan, 70. hamarkadan, komunista izatea oso gaizki ikusita zegoen, eta amari izugarritzko disgustoa eman nion. Ez nintzen alkate atera, Juanito Arbizu, bera ere independentea, aukeratu zuten baina lanean jarraitu nuen.

Arlo guztietan mugitu zara beraz.

Bai, denetik egin dut. Politika, sindikal mundua, gurasoen elkarteak, denetik egitea tokatu zait. Batez ere sindikatuen munduan mugitu izan naiz, urte asko eman baititut Irimoko enpresa komitean. Horrez gain, San Martin festetan ere lanean aritu naiz.

Zer lan izan da hori?

30 urte baino gehiago eman ditut festak antolatzen, edota behintzat

egun horretarako ekintzak prestatzen. San Martin egunak garrantzia du Urretxun, eta jai horren ohiturari eusten saiatu izan gara. Udaletxearekin batera, odolkia erosi, prestatu eta jendeari banatzen diogu. Orain jada lan hori utzi dut.

Jubilazioarekin batera, benetako erretiroa heldu zaizu?

Nik beti esan izan nuen: "jubilatzen naizenean dena utziko dut eta erretiratu egingo naiz". Lasaitasuna nahi nuen eta emaztearekin denbora gehiagoz egon. Berari agindu nion, gainera, erretiratzen nintzenean elkarrekin gehiago egongo ginela. Baina lasaitasuna ez da etorri, gauza berriak sortu baitira eta lanean jarraitzen baitut.

Orain APPALUREko presidente zara.

Bai. APPALUR Urola Garaiko aurrejubilatuak eta pentsionistak biltzen dituen elkarte da. 46 urte lanean igaro ondoren aurrejubilatu egin nintzen, eta ez nintzen egoera onean geratu. Nire eskubideengatik borrokatzeko lekua da APPALUR eta emazteak bultzatuta hasi nintzen

“**Emazteak askatasun handia eman dit ekimenetan parte hartzeko, eta hori asko eskertzen du**”

lanean. Emazteak esan zidan: "orain arte gainontzekoen alde borrokatu baduzu, orain ez duzu zure alde borrokatuko?" Eta horrela hasi nintzen APPALUREn. Merinoren heriotza eta gero, ni naiz presidentea eta hor nabil, gure eskualdeko aurrejubilatu eta pentsionisten eskubideak defendatzen.

Zergatik parte hartu duzu horrenbeste ekimenetan?

Behin amak galdera berbera egin zidan eta hari eman nion erantzun bera emango dizut; mundu hobea lortzeko lan egiten dut. Aberats eta pobreen artean gero eta desberdintasun handiagoa dago, eta hori ez zait gustatzen. Injustiziak ez zaizkit gus-

tatzen eta ahal den neurrian lan egiten dut injustiziarik egon ez dadin. Baina hori bai, beti sinetsi izan ditudan proiektuetan parte hartu dut. Izan ere, nik ez badut horretan sinesten ezin diot beste inori sinestarazi.

Egindako lanak satisfazio bat baino gehiago emango zizun.

Bai, satisfakzioak izan dira, baina ez asko. Egoera onak baino, txarrak gehiago izan dira. Satisfakzio handiena Irimoko grebaren ostean izan dut. 96 egun greban igaro ostean lanean hasi ginenean, eta kaleratu zituzten pertsonak berriz ere hartu zituztenean, adibidez, satisfakzio handia izan nuen. Oso gustora nengoan orduan. Hala ere, garaipen hura lortzeko asko borrokatu behar izan genuen eta asko sufritu genuen.

Zein egoera izan da okerrenea?

Egoera gogor asko bizi izan ditut, onak baino, txarrak gehiago izan dira. Eta beldurra ere izan dut. Tejero Estatu Golpea ematen saiatu zenean, adibidez, beldur handia izan nuen. Parte hartzen nuen ekintzak zirela ere, beldurra nuen, eta etxean nituen karnet eta gauzak erre egin nituen badazpada ere. Beldurrak, era berean, lan egiteko moduan ere eragin dit. Zenbait kasutan, ustelkeria edo beldurratik gauza asko egin gabe utzi ditut. Horrez gain, nire lanak emaztearentzako denbora gutxi utzi dit. Horrenbeste gauzatan sartuta egon naiz, denbora falta izan zaidala. Eta horrek pena ematen dit. Hala ere, emazteari asko eskertzen diot eman didan askatasun osoa.

Jose Mari Azkaratek Kaixoko lerro hauen bidez mezu bat bidali nahi izan die bere elkarteko kideei: "Besarkada handi bat bidali nahi diet APPALUREko kideei. Esperantza badagoela esan nahi diet, eta gure helburuak lortuko ditugula. Horretan saiatuko garela behintzat. >

Maidar Izagirre



JOSE MARI AZKARATE: HE TRABAJADO PARA CONSEGUIR UNA SOCIEDAD MEJOR

El vecino de Urretxu Jose Mari Azkarate lleva año participando en diferentes movimientos y asociaciones. Comenzó a trabajar en Irimo cuando sólo tenía 14 años, y después de casarse, su vida cambió comenzó a luchar por aquellas cosas en las que creía. Ha participado en movimientos sindicales, ha estado en el comité de empresa de Irimo, en política, asociaciones de padres y culturales, como la organización de las fiestas de San Martín.

Hoy en día, y después de jubilarse, Jose Mari Azkarate continúa trabajando por defender sus derechos. Ahora es presidente de APPALUR, Asociación de prejubilados y pensionistas de Urola Garaia, y lucha por los derechos de este colectivo. Azkarate afirma que no puede ver las injusticias y que por eso ha participado en todos estos movimientos, para conseguir una sociedad mejor. En todos estos años a este urretxuarra le ha tocado vivir momentos malos y buenos, ya que todas las cosas por las que ha luchado han valido la pena.



KIMETS, HARITIK ZINTZILIK



Krisi garaia da Kimets abesbatzarentzat.

Hamabost urte igaro dira sortu zenetik eta urtez - urte behera egin du ahots kopuruak: berrogei bat ziren 1990ean eta hamahiru dira gaur. Hari batetik zintzilik dago abesbatzaren biziraupena. Hari hau sendotu eta bizirik mantentzeko ahots berriak erakartzea edo zaharrak erreskatatzea da taldearen nahi eta helburu. Egoera ezagutarazteko Kimets-eko kide diren Onintza Mendia eta Ana Lizarralderekin hitz egin du Kaixok.

Hamabost urte daramatza Urretxu Zumarragako Kimets abesbatzak kantuan. 1990ko urria zen, hain zuzen, lehen ekitaldia eskaini zuenean. Xabier Barriola izan zen lehen hiru urtetan zuzendari, 1993an Javier Arratibelek erreleboa hartu zuen arte. Berrogei bat neska ziren orduan eta garai oparoak ziren abesbatzarentzat, Ana Lizarralde eta Onintza Mendiak nostalgiaz gogoratzen dituztenak: "Garai hartan asko ginen eta lanerako ahalmena handia zen. Egun, ordea, hamahiru besterik ez gara taldean eta oso zaila da hain gutxi izanda obrak aurrera ateratzea. Nahikoa da batek huts egitea guztia pikutara joateko, eta horrek tentsio handia sortzen du taldean"- dio Anak. "Egoera bestelakoa zenean aukera asko izan genituen eta baita aprobeztatu ere. Probintzia mailan, musika ekitaldi garrantzitsuetan

hartu genuen parte. Abesbatzak oso maila polita lortu zuen orduan."- gaineratzen du Onintzak. Atzera begiratu emanaldirik esanguratsuenak ekartzen ditu gogora: "1993an, Donostiako Musika Hamabostaldian, Juan Jose Menaren zuzendaritzapean eta Gasteizko Jesús Guridi Orkestrarekin abestu genuen. Urte horretan bertan abuztuak 14ko Salbea grabatu genuen Donostiako Orfeoiarekin. Abesbatzen elkarteak antolatutako Donostian Kantuz zikloan parte hartu izan dugu eta baita Antiguako abesbatza lehiaketan ere. Gipuzkoan hainbat ekitaldi eman

genituen, Errioxara ere joan ginen....Ordukoak bai garai onak!"

Ahalegin guztiak ahots bila

Ahots berriak dira Kimets-ek krisialditik ateratzeko behar duen bakarra."Ilusioa eta giro ona ez zaigu falta"- diote. Abesbatzaren mezua argia eta laburra da: "aurrera egin nahi badugu, ahots berriak behar ditugu". "Ahots berriak" badiote ere, kide ohiei ere luzatzen diete deia. Inork bueltatzeko gogoia izan badu inoiz, orain du aukera ona.

Kimets-eko kideak beren esku dagoen guztia egiten ari dira abesbatzaren biziraupena bermatzeko. Kaixo-rekin harremanetan jartzeaz gain Urretxu eta Zumarragako beste publikazio batzuekin ere jarri dira kontaktuan. Garaialde Lizeoan eta Jose Mari Iparragirre Institutuan ere hitzaldiak eman dituzte beren mezua zabaltzeko eta

“ Siendo tan pocas voces, a nada que falte alguien se va todo al traste ”

“ **Nosotras estamos haciendo todo lo posible para salvar la situación, pero no está todo en nuestras manos** ”

jendea animatzeko. Honela diote: "Ahal dugun guztia egiten ari gara egoera honetatik ateratzeko, baina honekin ez da aski. Herriak ere badu erantzukizunik arazo honetan. Jendeak gure deiar erantzunik ematen ez badio ez dago zer egirik."

Kimets-en desagerekin, kaltea ez litzateke soilik taldearentzat izango. Egia da abesbatzako kideek sumatuko luketela gehien desagerekin utzitako hutsunea, baina, Urretxu eta Zumarragarentzat ere galera izango litzateke: galera kulturala, alegia.

Kimetsek kontzientzia lasai

Jendeak abesbatzaren deiar erantzuten ez badio eta, azken erremedio bezala, abesbatza desagiteko erabakia hartzen bada, taldeak kontzientzia garbi izango duela adierazi digute Onintza eta Anak: "Kimets desagertuz gero, zaila izango litzateke desagerekin errua norbaiti leporatzea edo arrazoiak aurkitzea. Guk, behintzat, garbi daukagu amaiera iristen bada errua ez dela gurea izango. Ahalegin guztiak egin ditugu, eta egingo ditugu, hori gerta ez dadin. Baina, beste irtenbiderik ez badago eta hala izan behar bada, lasai izango dugu kontzientzia. Ez dugulako besterik gabe lehenengoan etsi."

Kimets-en biziraupenaren erantzukizuna ez da beraz abesbatzarena soilik, herritarron ardura ere bada. Hortaz, abestea atsegin duzen neskek, abesbatza bat

gertutik ezagutu eta lagun berriak egiteko aukera paregabea duzue. Taldekideen esanetan "ez da zertan solfeorik ezta ahots liluragarririk izan behar. Abestea gustatzearekin eta gogoia izatearekin nahikoa da, gainontzekoa denborarekin ikas-

Beraz, Kimets abesbatzako kide izan nahi baduzu, taldeak nola funtzionatzen duen jakin nahi, edo, besterik gabe, kuriositatea baduzu, hurbil zaitez Zumarragako Zelai Arizti aretora ostiraletan 21:30tik 23:00etara edo larunbatetan 15:00etatik 16:30era. Kimets-eko neskek zain dauzkazu besoak zabalik. >

Maite Quevedo

ten baita."


KIMETS, BUSCANDO VOCES

La coral Kimets de Urretxu y Zumarraga está atravesando el peor momento de su historia. Debido a la falta de voces que en estos momentos padece, cada vez es más difícil organizar conciertos. Si no consiguen nuevas voces que les permitan salir del bache, Kimets se verá obligada a disolver la agrupación.

Kimets ofreció su primer concierto en 1990 bajo la dirección de Xabier Barriola, pero es Javier Arratibel quien desde 1993 dirige la agrupación. Alrededor de cuarenta chicas formaban la coral por aquel entonces. En poco tiempo alcanzó un buen nivel y participó en importantes eventos musicales, entre otros: actuó en la Quincena Musical de Donostia bajo la batuta de Juan José Mena, con músicos de la Orquesta Jesús Guridi de Vitoria, en el concurso de coros de la Antigua, grabó la Salve del 14 de Agosto con el Orfeón Donostiarra, etc.

Hoy en día, lejos de aquella realidad, sólo son 13 chicas las que componen el grupo y la necesidad de gente es urgente. "Estamos haciendo todo lo posible para conseguir voces- dice Kimets- pero no todo está en nuestras manos. La desaparición de la coral sería una verdadera pérdida para el panorama cultural de Urretxu y Zumarraga, por lo que el pueblo también se tiene que implicar".





GAU GIROAN

*Ostiral gaua,
gaueko hamaikak inguruan,
Urretxuko kultur etxean argiak
pizturik daude,
Gau-giroan hasi da.
Marijerekin elkartu naiz,
Karrika enpresako arduraduna.
Haren ondoan ere Nagore,
ostiraleko jardueraren
gainbegiratzailea dena.
Gela ezberdinetan jarduera
ezberdinak egiten dabilta:
makilajea, kiromantzia,
sukaldaritza eta bisuteria.
Nor bere saltsan...*



Kiromantzia ikastaroa



Makillajea

Zumarraga eta Urretxuko Udalak ditugu proiektu honen antolatzaileak, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen kolaborazioarekin. Karrika, enpresa kudeatzailea dugu.

Zumarragan 2001. urtean hasi zen egiten. Urretxun aldiz 2004ko irailan. Marijeren hitzetan abantaila handia suertatu da azken hau, Urretxuko kultur etxean egiteak jardueraren funtzionamendua hobetzea baidakar.

Jarduerak Aste Santu bitarteko iraupena dute eta Urretxuko Kultur-etxeaz gain Zumarragako polikiroldegian ere badago zer egiterik; Saltsa eta merenguezaleentzat. Capoeira dantza berezia maite edo atsegin duenarentzat. Funky-a egiteko gogoia duenarentzat ere... guztia gorputzean bero pixka bat sartzeko bada ere!.

Hurrengo jarduerak maiatza-ekaina bitartean burutuko dira, eta urteko azkenak urria-azaroa bitartean. Ekintza gehienak ostiral gaueko ordutegia dute, hau da, 22:30tatik 00:30ak bitartean. Hala

ere, larunbat gauerako noizean behin zerbait antolatzen da. nahiz eta orokorrean emaitza onegia ez duen atera.

Parte hartzailearen profila

- Adina:

Aurtengoari begira, jardueraren hasera honetan jende gaztetxo asko apuntatu dela esan beharra dago 16-20 bitartekoak hain zuzen ere. Iaz 20-30 urtekoak izan ziren nagusi. 16-30 urte bitartekoentzat antolatutako zerbait dugu, hala ere 30 urtetik gorakoentzat ez litzateke traba bat izango parte hartzea, taldea badago parte hartu dezakete ere.

- Sexua:

Neska kopuru partehartzailea mutilena baino handiagoa izan ohi da orokorrean. Adibidez 2004an egindako balorazioan %80a neskek osatzen zuten eta %20a mutilek.



Capoeira

Aurten ere diferentzia handia agertzen da, neska kopurua handiagoa baita. Zergatik? Normalean neskak gehiago animatzen direla esan dezakegu. Ikastaro motak ere badu zerikusia.

- Hizkuntza:

Ikastaroak aurrera egin ahala, euskararen erabilpena gazteen artean nahiko altua dela ikus daiteke.

“El porcentaje de chicas que participan es elevado. Depende mucho del cursillo que se imparte”

- Zein herritik datozen:

Zumarragatik datoz gazte gehienak ikastaroetan parte hartzera (2004ko azken programazioan %61a Zumarragakoa zen, %29a Urretxukoa). Hala ere Urretxuko partehartzaile kopurua Urretxuko Udalak parte hartzen hasi denetik handitu egin da.

- Lanean /Ikasten:

Azkeneko datuei begiratu, ikastaro motaren araberakoa da

lanean edo ikasten ari den pertsonaren perfila. Iaz urte bukaeran egindako ikastaroetan ikasten ari zirenen portzentaia %53koa zen.

Ikastaroak nola planteatu, ze ikastaro mota egin...

Gazteekin hartuemanan izatea ezinbestekoa da. Inkestak pasatzen ditu Karrika enpresak, gazteekin hitzegiten da, programazio taldetan parte hartzeko aukera ematen zaie beraien proposamenak emateko...

"Dohan ematen diren ikastaroak dira, agian horrek konpromezu gutxiago eskatu dezake hainbat momentutan, hala ere jendeak etortzen jarraitzen du, eta hori engantxatzen duenaren seinale izan daiteke" (Mariaje, Nagore).

Helburuak...

Marije eta Nagoreen hitzetan hainbat eta hainbat helburu baditu proiektu honek

“ La gente sigue viniendo a los cursillos.

Eso puede ser señal de que lo que se ofrece engancha ”


adibidez:

Asteburu gauetan beste eskaintza batzu izatea, gazte jendea haien artean ezagutzea, lagunak izatea, jendea gustora egotea, ikaszea, gauza berriak ezagutzea (0 mailako ikastaroak ditugu), ligoak, beste askoren artean.

Herri txikia izateko jende kopuru handiak parte hartzen du ikastaroetan. Beste zenbait herrietan ere aurrera eramaten da, adibidez: Errenterian.

Aurrera badoa gaua, kultur etxeko geletan ikastaroak ere badoaz aurrera. Pasiloan musika entzun dezakegu, alai. Lasai dabil jendea, ondo, gustora, arretaz jarraitzen dituzte monitoreen esanak. Polikiroldegian ere musikak aurrera jarraitzen du; bertan dantzan dabilta, saltsa, funkya edota aerobikaren mugimenduan... gazteek badute non aukeratu asteburu gauetan. Hurrengo maiatza inguruan, animatu gazte!!!>

Ana Isabel Iturbe



Saltsa, saltsa...



Sukaldaritza



Funkya!

C.E.P.A.

Era el año 1983 cuando el Centro de Educación de Personas Adultas comenzaba su andadura en Urretxu, en el edificio de lo que conocíamos como las "escuelas viejas". Desde entonces ha realizado una labor que no siempre ha sido suficientemente conocida.

Tal y como nos cuenta ALIDA MOLINUEVO, directora del centro desde hace 14 años y profesora del mismo hace 22, la iniciativa de ofrecer una educación para adultos partió del propio Ayuntamiento. En 1983 y tras ponerse en contacto con la Delegación de Educación del Gobierno Vasco consiguieron que en Urretxu se ubicase un centro en el que los locales y su mantenimiento (luz, limpieza y agua) corrieran a cuenta del Ayuntamiento de Urretxu mientras que la Delegación de Educación correría con los gastos del profesorado, el mobiliario y los gastos de funcionamiento. En aquellos primeros años eran tres profesores y hoy en día son nueve los que imparten las clases.

Alumnado

A lo largo de estos 22 años han sido muchos los alumnos que han pasado por el centro. En un principio la mayoría eran chavales de 16-17 años, sin graduado escolar, y personas de mediana edad que en su día no tuvieron la oportunidad de sacarlo. Poco a poco se fue abriendo el abanico de posibilidades a otras personas y hoy en día podemos decir que trabajan con tres tipos de alumnos:

- 1.- jóvenes que provienen de un fracaso escolar; en general vienen obligados y con poco interés;
- 2.- personas adultas, con mucho interés por aprender y que consiguen, a base de gran esfuerzo, sus metas;
- 3.- desde hace unos 6 años trabajan con inmigrantes. De hecho hay una profesora especialmente preparada para darles clases de castellano, alfabetización, etc. Es un alumnado muy variado (hay algunos que tienen licenciaturas y otros que son analfabetos totales) y de mucha movilidad, poco estable.

Materias

Las enseñanzas que han impartido también han sido variadas y la oferta se ha ido adaptando a las necesidades del

mercado laboral y del propio alumnado. Se han impartido enseñanzas regladas, desde alfabetización hasta 4º de la ESO-DBH (antes Graduado Escolar). También ha habido cursos de auxiliar de enfermería, todo ello de forma totalmente gratuita y con índices de inserción laboral más que satisfactorios. Hoy en día la escuela ofrece:

- enseñanza reglada (desde alfabetización hasta ESO y DBH)
- enseñanza no reglada: preparación para el acceso a la universidad para mayores de 25 años y para el acceso a módulos de Grado Superior, español para inmi-

grantes, módulos de informática.

Locales limitados

Desde hace unos 8 años la escuela se ubica en los bajos del edificio de Jauregi 21. Son unos locales totalmente nuevos pero que sin embargo desde el principio han sido limitados en lo que a espacio se refiere, ya que la escuela anterior era más grande. Prueba de ello es que enseñada surgieron problemas funcionales y tuvieron que recurrir a usar aulas del entonces colegio Zelai-Arizti. De hecho hoy en día todo el aula de informática está ubicada allí.

Al fusionarse los colegios Zelai-Arizti y Gainzuri en uno único y trasladar todas las aulas al colegio Gainzuri el Ayuntamiento de Zumarraga se plantea

hacer del Zelai-Arizti una casa de cultura y dar un uso cultural a los locales allí existentes. Al tener conocimiento de esto el Centro EPA cursa una solicitud al Ayuntamiento de Zumarraga pidiendo los locales necesarios para ubicar allí todo el CEPA. El Ayuntamiento de Zumarraga está procediendo a su estudio, al igual que el resto de solicitudes que tiene para el edificio. En caso de que la solicitud fuese admitida, el CEPA se trasladaría de Urretxu a Zumarraga ofreciendo allí todos sus servicios. >

Irene Calvillo



CEPA-PHHZ, 22 URTE URRETXUN

Pertsona Helduen Heziketarako Zentroa 1983. urtean sortu zen. Gaur egun Jauregi kaleko 21. zenbakian dago kokatuta; bederatzirakasle ditu eta ikasleria anitza: eskola graduatu gabeko gazteak, helduak, etorkinak, ... Urteotan zehar eman diren ikasgaiak ere ugari izan dira: irakaskuntza arautua, arautu gabekoa, erizaintzako laguntzailea, goi mailako moduloetarako sarbidea. Gaur egun duten lokala ez da egokia euren beharretarako, eta horregatik, Zumarragako Udalarari luzatu diote eskaria, Zelai-Arizti ikastetxeak izan duen eraikinean toki bat eskuratu ahal izateko.

PERFILA

Maiatzean 21 urte
beteko ditu

Ingeneritza
ikasten ari da

13 urterekin hasi zen
Areto futbolean
jokatzen

“Profesionala
izatea ez naiz
planteatu,
jokatzen ondo
pasatzen dut”

IGUNTZE ASEGINOLAZA

El Pozo de Murcia, Boomerang Interviu, Playas de Castellon bezalako taldeak ezagunak dira Areto Futbolean. Goi mailako taldeak dira Estatuan, Euskal Herrian MRW Xota iruñarra da indartsuena. Horien parera baina emakumezkoen ligan ari da Goierri kirol elkarte, halere, Femesala Elche edo Futsi Navalcarnero liderrak ez dira hain ezagunak, beraien partidak ez dituzte telebistaz eskaintzen. Areto futboleko Estatuko ligako web orrian agertzen den bezala, Goierrik Aldiri kiroldegian jokatzen ditu partida gehienak. Pistan protagonista nagusienetarikoa Iguntze Aseginolaza jokalaria urretxuarra da.

Gaztea izan arren Iguntze Aseginolazak Aldiri kiroldagian makina bat ordu igaro du kirola egiten, izan ere, duela zortzi urte hasi baitzen areto futbola ezagutzen. Hasieran atletismoari ekin zion Iguntzek, batez ere, krosa. 13 urte zituela kiroldagian sartu zenean areto futbola frogatu zuen; baloi txikiarekin ondo konpontzen zela jabetuz taldean jokatzeko hasi zen. "Krosa eta areto futbola, biak batera egiten nuen hasieran, areto futbola gehiago gustatzen zitzaidanez, atletismoa uztea erabaki nuen".

Nahiz eta eskatzen zen adina ez izan Iguntze infantilean hasi zen jokatzeko. "Taldetan beti izan naiz gazteena" azpimarratzen du, halere hori ez da inoiz oztoporik izan. Goierriekin Iguntze ibilbidea bikaina betetzen ari da, 21 urterekin ohorezko mailan jokatu. "Pitxi entrenatzaileak atea ireki dizkit uneoro, aukera guztiak izan ditut eta aprobetxatu ditudala uste dut". Futbol handia ez du frogatu, "aukerak izan nituen, halere, beti gustatu izan zait kiroldagian aritzea eta pozik nago".

Izan ere, Euskal liga irabazi ondoren, ohorezko mailara pasatu zen Goierri. Horrelako mailan aritzeko jokalarik onak behar direnez eta Gipuzkoako bigarren taldea izanik -Hegoalde talde tolosarra zegoen- ekipoa osatzeko lurralde osoa arakatu zen. Horregatik Iguntze da urretxuar bakarra taldean. Astean hiru aldiz entrenamenduak egiten dituzte Donostiako Bidebieta kiroldagian

“ Si fuéramos hombres el polideportivo estaría a tope ”

eta partida gehienak, aldiz, Aldirin jokatzeko dituzte, hamabosten-behin, larunbatetan.

"Nabaritzen da mail gorenean gaudela" onartzen du Iguntzek. "Batzuk kobratzen dute, erdi-profesionalak dira, eta hiriburuko taldeen aurka aritzen garenean somatzen da irabazteko premia dutela". Orain arteko esperientziarekin pozik agertzen da urretxuarra. "Oso gustora nago, kontutan hartu behar dugu Gipuzkoak bi talde dituela horrelako mail batean; eta dauden taldeak hiriburukoak dira: Valladolid, Ourense, Madril, Valencia, Girona... gertuenak Logroño eta Zaragozakoak dira".

Lehenengo urtea izanik helburua jakina da, mailan mantentzea. Horregatik azken hiru postuak uxatzen da erronka. Martxoan hasieran hiru puntuko aldea ateratzen zizkioten Arturo Eyriesi, gainera Goierri talde honen aurka amaituko du liga Valladoliden datorren ekainean.

“ Nuestro objetivo es mantenernos en la liga de honor ”



"Hasieran kostatu zitzaigun mailari heltzea, halere, partida bakoitza borrokatu dugu eta horrek adierazi zigun guk dugun maila ez dela txarra" azaltzen digu.

Halere taldean brasildar bati eman zioten aukera. "Maila polita du, nabaritzen da bere jokua, halere, gu talde moduan aritzen gara; bestetik, oso harreman onak izaten ditugu gure artean, elkarrekin denbora asko pasatzen baitugu" dio Iguntzek. "Adinez talderik gazteena gara ligan eta lehenengo urte honetan mailari eusten badiogu esperientzia bereganatuko dugu".

Gizonezkoekin konparazioa ezinbestekoa da. Iguntzeren ustez "Gipuzkoak gizonezko mailan talderik izango balu kiroldegia jendez gainezka izango genuke; ez dakit zergatik baina partidatara gure familiako eta koadrilako jendea doa bakarrik; hiriburuetan jokatzeko dugunean nabaritzen da jendearen animoak, guk betikoak ikusten ditugu harmailetan eta horregatik eskertzen diet beraien laguntza".

Profesionaltasuna emakumezkoen kirolean lortzea zailagoa da. Urretxuarrak argi du oso zaila dela, "nik ez dut hortan pentsatzen; areto futbolarik atea ireki dizkit, aukera polita eman dit jendea, hiriak... ezagutzeko eta oso gustora nago, ondo pasatzen dut jokatzeko eta etorkizunean ez dakit zer egingo dudan". >

Jabier Otermin



2001-2002ko denboraldian

MARTXOAN BERTSOAREN GIRO APARTA

Martxoaren 5ean jarri zen abian Zumarraga-Urretxuko bertso eskolak antolatu duen Martxoan bertsoa ekimenaren hirugarren edizioa. Martxoan Aitor Mendiluzeren ikastordu irekia eta txapelketa jokatu eta gero, apirilean izango du jarraipena zikloak. Batetik, apirilaren 2an bertso afaria izango da Balentiña jatetxean. Apirilaren 8an, bertso sortak kantatuko dira Gaztelekun eta bukatzeko, gaztettoenek ere izango dute gozatzeko aukera apirilaren 10ean Labeaga Aretoan taularatuko den bertso antzerkiarekin. Apirilaren 15ean, bertso paper lehiaketako sari banaketa ekitaldiak itxiko du aurtengo bertso hilabetea.



EL DURO INVIERNO DEJA PASO A LA PRIMAVERA

Dicen los expertos que por lo menos hace 40 años que no se vivía un invierno tan duro.

Han sido cinco los temporales que hemos sufrido con las consiguientes consecuencias; frío, nieve, heladas y caídas. Todos hemos estado pendientes del cielo más que de ningún otro lugar y muchos de los vecinos del pueblo no se han atrevido a salir de casa en varios días por miedo a los resbalones. En Urretxu se han llegado a alcanzar los 8° bajo cero, y por suerte la primavera va dejando atrás el invierno. Pero no hay mal que por bien no venga, porque como dice el refrán; año de nieves, año de bienes.

EXPOSICION DE LAS OBRAS DE ELI MENDIA EN JUAN DE LIZARAZU

La sala de exposiciones Juan de Lizarazu va a acoger las obras de Eli Mendia desde el 20 de abril hasta el 4 de mayo. Eli comenzó su andadura artística a la edad de 11 años de la mano del pintor

Vaqueriza y a día de hoy continúa con esa afición. La exposición la van a componer los óleos de paisajes que ha ido realizando en los tres últimos años a pesar de que en su haber tiene muchos más.



DVD SOBRE URRETXU Y CD-ROM DE NUESTRO ENTORNO NATURAL

En los últimos meses se han editado un DVD sobre Urretxu y una guía con un CD-Rom sobre paisajes y naturaleza de nuestro entorno. El DVD muestra la historia, costumbres, patrimonio y fiestas, así como los datos generales del pueblo, mientras que en la guía, editado por Uggasa, se pueden encontrar los lugares con mayor riqueza natural de nuestro entorno. Los interesados en adquirirlos pueden dirigirse a la Casa de Cultura o al Ayuntamiento de Urretxu.

LEHIAKETAK 2005

Urtero bezala Urretxu eta Zumarragako udalek hainbat lehiaketetarako deialdia egin dute.

IPARRAGIRRE SARIA LITERATUR LEHIAKETA

Saria: 600 euro eta lana liburu batean argitaratzea. Aurkezteko epea eta lekua: ekainaren 24a arte, Urretxu eta Zumarragako udaletxetako kultur sailetan. Narratiba eta Poesia euskeraz eta erderaz. Lanen luzera: narratiban 6-12 folio; poesian, 200 euro bertso baino gehiago.

PINTURA LEHIAKETA

Sariak: 1. Saria 1000 euro; 2. Saria 600 euro; herriko onena, 400 euro. Aurkezteko epea eta lekua: Irailaren 9a arte, Urretxuko kultur etxean. Gaia eta teknika: libreak. Neurriak: gehienez 130x97 zm.

ARGAZKI LEHIAKETA

Sariak: Txuri-beltzean: 1. Saria, 210 euro eta garaikurra; 2. Saria, 150 euro; 3. Saria, 90 euro; herriko onena, 100 euro. Koloretan, 1. Saria, 210 eta garaikurra; 2. Saria, 150 euro; 3. Saria, 90 euro; herriko onena, 100 euro. Aurkezteko epea eta lekua: Irailaren 9a arte, Zumarragako udaletxean.

LORE LEHIAKETA.

Urretxu eta Zumarragako kaleko leiho eta balkoiak eta baserri guztiak begiratuko dira. Noiz: uztailaren 4tik 8ra bitartean.

**POZOITUTAKO
TXAKURREN KASUA
IKERTZEN JARRAITZEN
DUTE**

Pasa den uztailetik hainbat txakur pozoitu dira, Santa Barbaratik Irimora doan bidean eta horietako batzuk hil egin dira gainera. Urretxuko Udaltzaingoan horren erantzulea nor izan daitekeen ikertzen ari dira. Bide horretan aurkitutako pozoitutako oilasko zati bat ikertu ondoren, barazteetan bareak hiltzeko erabiltzen den sustantziarekin pozoitu direla txakurrak jakin dute eta bide horretatik ikertzen ari dira. Hala ere, prebentzio modura, txakurrak beti lotuta eramateko gomendioa egiten du Udaltzaingoak.



KORRIKA PASA DA

Pasa den martxoaren 16an pasa zen AEK antolatutako 14. Korrika gure herriko kaleetatik. Azkoiti aldetik sartu zen herrira eguerdian.

Fotografía de Jose Manuel Urrechua y sus hijos Aitor José y Garbiñe.



**LA FAMILIA URRECHUA DE OVIEDO
VISITA NUESTRO PUEBLO**

En la fotografía pueden ver a los Urrechua, una familia residente en Oviedo, que ha estado de visita en nuestro municipio. El padre, José Manuel Urrechua, procede de Barakaldo por lo que conocía la existencia de nuestro pueblo desde hacía tiempo, pero no había tenido la oportunidad de visitarnos anteriormente. Finalmente, han podido venir y conocer el lugar del cual proviene su apellido. En realidad, Urrechua era el segundo apellido de José Manuel hasta hace algún tiempo. No obstante, a sabiendas de que éste se estaba perdiendo, decidió invertir de orden sus dos apellidos y colocarlo en primer lugar.

**UROLA AGIP ESKUBALOI
TALDEAK AMAITU DU LIGA**

Amaitu da aurtengo liga Urola Agip eskubaloi-taldearentzat. Gipuzkoako 1. mailako lurralde ligan jokatu dute eta zazpigarren postuan amaitu dute. Beraz, mailari eutsi diote. Azken partida Urnietakoren aurka jokatu zuten martxoaren 13an Urnietako kiroldegian eta 29 eta 24ko emaitzarekin galdu zuten. Orain, ordea, Gipuzkoako Kopan sartuko dira buru belarri.



**GIMNASIA RITMIKAKO
ERAKUSTALDIA LIERNI
LANBERRIREN ORDIMENEZ**

Apirilaren 23an Lierni Lanberriren oroimenez ginmanisia ritmikako erakustaldia egin behar dute Aldiri polikiroldegian. Denbora luze daramate Lierniren lagunek erakustaldi hau antolatzen Beatriz irakaslearen eskutik. Bertan duela hamar urte gimnasia egiten zutenak eta orain dirautenak hartuko dute parte. Honekin omenaldi txiki bat egin nahi izan diote Lierniren familiari eta berari ere dagoen tokian dagoela.

**SE DERRUMBA UNA
PARTE DEL MURO DE
CONTENCION EN
LABEAGA 66**

Hace unas semanas se derrumbó parte del muro de contención existente entre la calle Labeaga y la urbanización Lilibaso y provocó días después la ruptura del tubo de aguas, afectando todo ello a los propietarios de bajos y garajes de varios vecinos de Labeaga. Este muro es de propiedad privada y se construyó entre las empresas Mujika y Leizarran. Ambas, con mediación del Ayuntamiento, acordaron asumir la reposición del lugar. Ahora queda saber quién asumirá la responsabilidad de lo ocurrido. Mientras, el Ayuntamiento ha pedido un informe de situación para determinar si existen problemas con la seguridad de la urbanización Lilibaso.

**Agurtzane Aramendi
Estitxu Gomez**

UDAL ZERBITZUAK

Atal berri jonetan Urretxuko udalak eskaintzen dizkizuen zerbitzuen berri zuzena eman nahi dizuegu.

Horretarako udaleko sail ezberdinak joango gara aurkezten zuen eskura dituzuen ahalbide horiek ezagutu ditzazuen.

BULEGO OROKORRA

Kokapena: udaletxeko beheko solairua

Harrerako langileak: bi

Telefono zenbakia: 943 03 80 80

Zein tramitazio egin ditzakezue?

- Padroiari buruzko kontsultak, altak, zertifikatuak....
- Dokumentuak aurkeztu eta erregistratzea, bai udalerako direnak baita foru aldundirako direnak ere (eskariak, baimenak... era guztietakoak).
- Konpulsatzeko dokumentuak aurkeztu.
- Hilerruari buruzko gestioak.
- Hauteskundeei eta eroldari buruzko datuak jaso, zuzendu...
- Jarduera expedientea
- Ondasun higiezinaren gaineko zerga eta trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari buruzko gestioak

Horrez gain, udalerako duzuen edozein kontsulta bideratu edota edozein argibide eskatzeko behar duzuen laguntza eta harrera pertsonala aurkituko duzue.>

Irene Calvillo



TELEFONUAK	K
U L ZENT LIT	3 3
F X U L	3 3 1
HI IGINTZ	3 3 2
GIZ TE NGIZ TE	3 3 3
I U ILKET	3 3
U LTZ ING	3 3 5
KE E ITEGI	3 3
K NTUH TZ ILE	3 3 7
KULTU ETXE	3 3
F X KULTU ETXE	3 3
LK TETZ	3 3
LI U UTEGI	3 3 1
KI L EGI	3 3 2

TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIAK

2005-01-24

Chatarrerria Raci, S.L.
" Mugitegi E kalean 1-3 txatarrerria jarduera espedientea: Tokiko Gobernu Batzarraren txostena.

"Chatarrerria Raci, S.L." enpresak Mugitegi E kalean 1-3 zenbakian txatarrerria jarduera legezatzeko baimena eskatzen du. Tokiko Gobernu Batzarrak jarduera horren aldeko informea eman du.

Udal Bulegoak. Egun baliogabekoak

Santa Anastasia eguneko jai ofizialaz gain (irailaren 26an), herrian tradizioa duten beste hainbat egun ospatzeko 2005. urtean zehar udal- bulegoak itxita izango dira, hain zuzen ere: Ekainaren 24ean, uztailaren 1ean, abenduaren 13an, 24an eta 31an.

Hauek baliogabeko egunak izango dira, ondorioz, Urretxuko Udalaren administrazioarekin lotutako obligazio edo eskubi-deetarako egun horietan amaitzen den edozein epemuga hurrengo egunera Luzatuko da.

Fakturen zerrenda

27. zk duen faktura zerrendaren berri eman da, 18.952,95 2

2005-02-07

"Zumarraga Distribuciones, S.L.": Mugitegi A kalean 17 lubrifika-tzaileak merkaturatzeko jarduera espedientea: Tokiko Gobernu Batzarraren txostena.

Lekuko Gobernu batzordea Alkate jaunak eta hark izendatutako zinegotziek osatuko dute; gure kasuan, alkate jaunak eta lau zinegotzik, bi EAkoak eta beste bi EAJkoak.
Nahiz eta legez Lekuko Gobernu batzordearen bilerak ez diren publikoak, Urretxun batzordekide ez diren zinegotziek, Herri bidekoak barne, bileretan parte hartzeko eskubidea izango dute eta bertan eztabaidatzeko, baina ez dute boturik izango.
Udalak dituen Batzorde informatzaileak proposatzen dituzten gaiak aztertu eta bere kasuan onartu egiten ditu batzorde honek.

Miren Castillo

HARTUTAKO ERABAKIAK

"Zumarraga Distribuciones, S.L." enpresak Mugitegi A kalean 17 zenbakian lubrifikatzaileak merkaturatzeko jarduera legezatzeko baimen eskatzen du.
 Tokiko Gobernu Batzarrak jarduera horren aldeko informea eman du.

"Alaska, C.B." Areizaga 1- behean kafe-antzokia jarduera espedienteak: Tokiko Gobernu Batzarraren txostena.

"Alaska, C.B." k Areizaga 1 behean kokaturik dagoen Kafe-antzokia irekitzeko obrak egiteko baimena eskatzen du.
 Tokiko Gobernu Batzarrak jarduera horren aldeko informea eman du.



2.000 alean eta 2005eko Argia urtekarian publizitatea sartzea

Argiaren 2005 urteko urtekarian eta 2.000 alean publizitate faldo bana sartzea Urretxuko Udalaren izenean; horren guztiaren prezioa izanik 655,40 euro.

Lapurdikoa Gure Irratia: Publizitate kanpaina

Erabakitzen da bi astetan zehar, 3 tarte egunean, publizitatea egitea Gure Irratian, 348 euro prezioan, BEZ barne.

Herri Urrats 2005: Dirulaguntza

Onartzen da 120 eurotako dirulaguntza ematea Herri Urrats 2005eko ekitaldiari.

Ibilaldia 2005: Dirulaguntza

Aho batez onartzen da 120 eurotako dirulaguntza ematea Ibilaldia 2005eko ekitaldiari.

Euskera Biziberritzeko Plan Nagusia: 2004ko gastuen likidazioa

Zintzo-Mintzo Elkarteak Euskera Biziberritze Planari dagokion 2004 urteko likidazioa ikusi ondoren, batez erabaki da: Lehenengo.- 2004ko urtean aipatutako planak izandako gastuen likidazioa onartzea.

Bigarren.- Aipatutako planak sortarazitako gastuen likidazioa egiteko, 1.233,59 euro zenbatekoa ordaintzea Zintzo-Mintzo Elkarteari.

Korrika 14

Aurtengo Korrika 14an, Urretxutik igarotzerakoan parte hartzeko, 320 euro kostatzen den kilometro bat erostea erabakitzen da.

Korrika Kulturala: Dirulaguntza.

Onartzen da Korrika 14 ekitaldiaren batzorde antolatzaileari 715,14 euroko dirulaguntza ematea, herrian egingo diren kultur ekitaldierarako.

Martxoan bertsoa

Bertso eskolari 997,22 euro dirulaguntza ematea, "Martxoan bertsoa 2005" egitaraurako.

2005eko urtekoa erakusketa egitaraua

2005urtean egingo diren erakusketak eta d a g o k i e n aurrekontua onartzen da, 2.274 euro + BEZ.



Urretxu-Zumarraga: 2005eko antzerki egitaraua.

2005eko antzerki egitaraua eta aurrekontua onartzen da.
 Aurreko urteetan bezala Zumarragarrekin batera egingo da eta urte osoan zehar banatuko da. Egitarau horren gastuen aurrekontua guztira 58.380,40 euro da; hortik 24.024,09 euro Urretxuri dagozko.

2004-2005 ikasturteko eskola kirola: Lankidetzak hitzarmena.

2004-2005 ikasturteko eskola kirolari dagokion lankidetzak hitzarmena, onartzea erabakitzen da. Hitzarmen hau, Urretxu eta Zumarragako Udalek eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Departamentuak sinatu beharreko dute.
 Alkate jaunari ahalmena ematen zaio behar diren agiri guztiak sinatzeko.



Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen Zergaren Errolda.


2005. urteko Trakzio Mekanikozko Ibilgailuei buruzko Zergaren Errolda aztertu da; herri honetan helbideratutako ibilgailu guztiak agertzen dira bertan, ordainagiriaren zenbatekoa 341.654,50 euro delarik; hori ikusirik, onespina ematea erabaki da, eta jende aurrean azaltzea 15 eguneko epean erreklamazioak egin ahal izateko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuz.

Fakturen zerrena

40.894,71 euro faktura zerrenda onartzen da.

Haurrentzako

Antzerki Programazioa



APIRILAK 10

**GAZTETXOEN
BERTSO ANTZERKIA**
"Non dago bizikleta?"

17:00 etan

Urretxuko Labeaga Aretoan

APIRILAK 24

**PIRRITX
eta PORROTX**
"Patata, patata"

17:00 etan

Ederrena Pilotalekuan

MAIATZAK 22

**HANKATXO
PRODUKZIOAK**
"Xomorroak"

17:00 etan

Urretxuko Labeaga Aretoan

URRIAK 23

**HIKA
TEATROA**
"Groau"

17:00 etan

Urretxuko Labeaga Aretoan

gari

"0-tik"

Apirilaren 15ean

22:30 etan

Labeaga Aretoan

Kantagintza

SARRERAK

- alde zuzeneko erosita, 6 euro;
- egunean bertan erosita, 8 euro

Alde zuzeneko erosketako egunak eta orduak:
Apirilaren 11 eta 13an,
Labeaga aretoan bertan,
19:30etatik 21:30etara

